

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektuan, alde batetik hornitzaile moduan lehen sektoreko enpresa eta elkarteekin harremanak izango ditugu, lehengaiak eskuratzeko. Lehengai horiek gure lantegi propioan erabiliko ditugu, gure produktuak geure kabuz ekoizteko. Ekoizitakoa banatzeko kirol dendekin erlazionatuko gara, gure produktuak sal dezaten. Horrez gain, kirol-ekitaldiak antolatzen dituzten elkarteekin izango dugu harremana haien laguntzaz gure ekoizpenak sustatzearren.

Bazkideak eta hornitzaileak ezinbestekoak dira gure enpresa aurrera atera ahal izateko. Izan ere, hauek dira gure produktua gehiago saltzea ahalbidetzen dutenak.

